

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## **KALE EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO HARRERA BALIABIDEEN IREKIERAZ HIRIKO HAINBAT ERAGILEK EGINDAKO ESKAERARI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Otsailaren 10eko gauean, 60 herritar inguru elkartu ziren Bulebarreko kioskoan, bertan lo egiteko eta protesta egiteko, Donostiako Udalak hotzerako aterpetxea gradu jakin batzuetatik aurrera irekitzeko hartutako erabakia dela eta. Ekimena Herritarren Harrerarako Saretik abiatu zen, eta Kaleko Afari Solidarioak elkarteko kideak eta aldarrikapen hori babestu nahi izan zuten beste herritar batzuk ere elkartu ziren.

Eragileek eskaera zuzena egin zioten Udal Gobernuari: izotz arriskua dagoenean irekitzen den baliabidea negu osoan zabaltzeko (martxora arte), 9 edo 10 gradu egiten dituen edo euria egiten duenean, kalean lo egitea oso gordina delako.

Izan ere, urtarrilaren 14an, 100 pertsona hartzeko gaitasuna duen errekurso hori ireki egin zen, La Sirena aterpetxean, nahiz eta irekiera-protokoloak eskatzen dituen muturreko hotz-baldintzak betetzen ez ziren. Urtarrilaren 14, 15, 16 eta 17ko gauetan 57 pertsona joan ziren baliabide horretara. Hilaren 18an, itxi egin zen eta pertsona horiek guztiak berriz ere kalera itzuli ziren. Gero, urtarrilaren 20an ireki zen berriro errekursoa, eta 23an itxi egin zen, hotz handia egin arren. Ondoren, irekitzen eta ixten joan da, egun batetik bestera, kale egoeran lan egiten duten eragileen harridurarako.

EH Bilduk bat egiten du kolektibo sozial ugari eta Donostiako Hiritarron Harrera Sareak egindako eskaerarekin. Gogora dezagun konfinamendu garaian frogatu zela Udala gai dela lan hori bere gain hartzeko, gauero etxerik gabeko 100 pertsonak baino gehiagok pasatu baitzuten gaua bertan. Eta gogoratu behar da, era berean, Arartekoak zerbitzu hori ematen jarraitzea gomendatu zuela konfinamendua igaro ondoren, zerbitzu horrek pertsona horien bizitzan eta gizartean sortu zuen onura argudiatuz.

Udal Gobernuako delegatua batzordean interpelatu dugunean, neguko baliabidea irekitzeko protokoloa bere horretan mantenduko dutela adierazi du: hau da, kostaldean izotz arriskua dagoenean eta Donostiako batez-besteko tenperatura 0 gradu azpikoa denean.

## **EH Bildu talde politikoa** **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

Kale egoeran dauden pertsonentzako baliabide gehiago jartzearen aurrean ezezkoa emateko erabiltzen diren argudioen artean bi nabarmendu behar dira: dei efektua eta gizarte zerbitzuen legedia betetzen ari dela. Alde batetik, datuek ez dute inolako dei efekturik adierazten; esate baterako, auzoetako kaleko afari solidarioen onuradun kopurua egonkor mantentzen da astetik astera. Bestetik, gizarte zerbitzuen legediak akordio politikoetan oinarritutako minimoak jasotzen ditu, borondatearekin egungo errealitatera egokitu eta alda daitezkeenak.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko web orrialdean argitaratu dezala Ate Irekien Zerbitzua noiz ireki eta itxi behar den, herritar guztiek horren berri unean bertan izan dezaten.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Ate Irekien Zerbitzua irekitzeko protokoloa aldatu dezala, zerbitzua negu osoan irekitzeko (azarotik martxora arte) Donostian era egonkorrean kale egoeran dauden pertsona kopuruari arreta eskaintzeko nahikoak diren plazekin.

Donostian, 2022ko otsailaren 17an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**